

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

Iragarkia

Jende aurreko arauzko epea inolako erreklamazio eta oharrik aurkeztu gabe igaro ondoren, behin betikotzat jo da Udalbatzarrek 2022ko maiatzaren 26an egindako Osoko Bilkuran hartutako bazterkeria egoeran daudenentzat gaueko eta eguneko arreta zerbitzuaren akordioa, honako erabakiekkin:

- Bazterkeria egoeran daudenentzat gaueko eta eguneko arretarako udal-zerbitzua Tolosako Udalak bere gain hartzea, berriazko zerbitzu publiko gisa.
- Zerbitzu hori zeharkako eran kudeatzea, zerbitzu-kontratu baten bitartez.
- Zerbitzu publiko honen oinarritzko araubidea ondokoa delarik:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. *Helburua.*

Araudi honen helburua da Tolosako «Gaueko eta Eguneko Arretarako Udal-Zerbitzua bazterkeria egoeran dauden pertsonentzat» zerbitzua arautzea. Zerbitzu hau, Tolosako Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentuak eskaintzen duen baliabidea da, herrian dauden eta ostatu, mantenu eta higiene arloko oinarri-oinarritzko prestazioak eskuratzeko ezintasuna duten pertsonen arreta ematen diena.

2. artikulua. *Zerbitzuaren helburuak.*

Zerbitzu honen helburu nagusia da gizarte-bazterketa egoeran edo jasateko arriskuan dauden pertsonen oinarri-oinarritzko beharrei erantzuteko arreta eskaintzea, gizarte-kohesiorako eremuak sortuz, eta gizarte-arreta ematearekin batera, gizarteratze-prozesuak ahalbidetuz. Eguneko arreta-zerbitzua eta Gaueko arreta-zerbitzua uztartuko ditu, zerbitzu profesionala eskainiz.

3. artikulua. *Emango diren zerbitzuak.*

– Eguneko arreta-zerbitzua: Bazterketa-egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat eguneko baliabide bat eskaintzea da zentro horien helburua, pertsona horiek jateko eta norberaren garbiketarako oinarritzko beharrak non bete izan dezaten. Hortaz, egoera horiek premia larrikotzat hartzen dira. Horrez gain, kalean beharrean beste leku batean egoteko eta topo egiteko aukera eskaintzen die zerbitzu horrek etxerik gabeko pertsonen; hau da, harreman sozialak izateko bestelako esparru bat.

– Gaueko harrera-zerbitzua: intentsitate txikiko baliabidetzat hartzen dira, bazterketa-arriskuan eta egoeran dauden pertsonen laguntzeko, eta batez ere iragaitzako bidariei eta etxerik gabeko pertsonen zuzendurik daude. Baliabide horren xedea da gaua igarotzeko eta beharrezko berehala asebetetzeko leku bat eskaintzea; hori dela eta, oinarritzko prestazio hauek eman behar dira: lotarako lekua, mantenua eta norberaren garbiketarako aukera.

– Boluntarioak: Boluntarioen parte-hartze iraunkorra planteatzen da, Abegi Elkartearen jarduera hasi zenetik hainbat boluntario

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Anuncio

Transcurrido el plazo reglamentario de audiencia pública sin que se haya presentado ninguna reclamación u observación, se da por definitivo el acuerdo del servicio de atención nocturna y diurna para personas en situación de exclusión, adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 26 de mayo de 2022, con las siguientes resoluciones:

- Asumir por el ayuntamiento de Tolosa el servicio municipal de atención nocturna y diurna para personas en situación de exclusión, como servicio público específico.
- Gestionar el servicio de forma indirecta, mediante un contrato de servicios.
- La normativa básica de este servicio público es la siguiente:

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. *Objetivo.*

La presente normativa tiene por objeto regular el «Servicio Municipal de Atención Nocturna y Diurna de Tolosa para personas en situación de exclusión». Este servicio es un recurso que ofrece el Departamento de Sanidad y Servicios Sociales del Ayuntamiento de Tolosa para atender a las personas que se encuentran en el municipio y que no pueden acceder a las prestaciones básicas de alojamiento, manutención e higiene.

Artículo 2. *Objetivos del servicio.*

El objetivo principal de este servicio es atender a las necesidades esenciales de las personas en situación o riesgo de exclusión social, creando espacios de cohesión social que, junto con la atención social, posibiliten procesos de inclusión social. Combinará el servicio de atención diurna con el servicio de atención nocturna, ofreciendo un servicio profesional.

Artículo 3. *Servicios a prestar.*

– Servicio de atención diurna: El objetivo de dichos centros es proporcionar un recurso de día para personas en situación o riesgo de exclusión, para que puedan cubrir sus necesidades básicas de alimentación y aseo personal. Por tanto, esas situaciones se consideran de extrema necesidad. Además, el servicio ofrece a las personas sin hogar la posibilidad de estar y encontrarse en un lugar diferente a la calle, es decir, un ámbito diferente donde poder relacionarse socialmente.

– Servicio de acogida nocturna: se consideran recursos de baja intensidad para la atención a personas en riesgo y situación de exclusión, dirigidos principalmente a personas viajeras en tránsito y a personas sin hogar. El objetivo de ese recurso es proporcionar un lugar para pernoctar y satisfacer las necesidades de forma inmediata; por lo que las prestaciones básicas son: alojamiento, manutención y aseo personal.

– Voluntariado: Se plantea la participación permanente del voluntariado, ya que desde el inicio de la actividad de la Asociación

aritu izan direlako lanean, eta elkartearen funtzionamen-durako motor eta barne-filosofiaren euskarri izan direlako, herritarren artean solidaritatea eta boluntariora mailako baloreak sustatuz modu naturalean.

– Besteak: komenigarria ondorioztatzen bada, zerbitzu honen bidez bideratu ahal izango dira beste zerbitzu osagarri batzuk ere. Hala nola, hotzaren programa, ibiltariak botikak eskuratzeko laguntzak.

II. KAPITULUA

ERABILTZAILEEI DAGOKIENEAN

4. artikulua Erabiltzaileen baldintzak.

a) Eguneko arretako zerbitzuaren erabiltzaileak:

– Adin nagusikoa izatea.

– Intentsitate txikiko laguntza behar izatea horrelako zerbitzuen bidez zenbait beharizan bete ahal izateko.

– Dagokion tratamenduari ez uko egitea, gaixotasun infektiboa edo kutsakorra eta/edo buruko gaixotasuna izanez gero.

– Osasun-arreta espezializaturik eta/edo iraunkorrik behar ez izatea, zerbitzuak eskura dituen edo berez eskaini ditzakeen baliabideetatik kanpo.

– Zerbitzura bertaratzeko plaza eskatu izana, edo, horrela badagokio, berritzeko eskaera egin izana.

– Zerbitzuko langileek adierazitako arauak eta jarraibideak betetzea.

– Eguneko arreta-zerbitzutik eta gaueko harrera-zerbitzutik aurrez kanporatu ez izana.

– Zerbitzuan sartu aurretik substantziak kontsumitu ez izana.

– Gaueko harrera-zerbitzua eta eguneko arreta biak aldi berean ez baliatzea, non eta zerbitzuko profesionalak ez duten horrela agintzen.

b) Gaueko harrera-zerbitzuko erabiltzaileak:

– Adin nagusikoa izatea.

– Langileek norberaren garbitasunarekin eta zentroaren beraren higiekin loturik emandako argibideak betetzea.

– Jokabide-arazorik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo bertako bizikidetzaren normala modu larrian nahasi dezakeen jokabiderik edota norberarentzat eta beste pertsonentzat arriskua sor dezakeen jokabiderik ez izatea.

– Ospitaleratzea eska dezakeen gaixotasun fisiko edo psikorik ez izatea.

– Osasun-arreta espezializaturik eta/edo iraunkorrik behar ez izatea, zerbitzuak eskura dituen edo berez eskaini ditzakeen baliabideetatik kanpo.

– Erreserbak egiteko ordutegian (asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 10:30era) zerbitzua eskuratzeko plaza eskatu izana.

– Zazpi gaueko egonaldiaren muga gainditu ez izana (profesionalak emandako luzapenen kasuan izan ezik).

– Gaueko azken harreraz geroztik hiru hilabeteko epea (araudian zehaztutakoa) igaro izana, non eta ez dagoen bestelako preskripzio teknikorik.

– Zerbitzuko langileek adierazitako arauak eta jarraibideak betetzea.

– Eguneko arreta-zerbitzutik eta gaueko harrera-zerbitzutik aurrez kanporatu ez izana.

– Zerbitzuan sartu aurretik substantziak kontsumitu ez izana.

Abegi se ha venido trabajando con un número importante de personas voluntarias que han sido el motor y soporte de la filosofía interna para el funcionamiento de la asociación, promoviendo de forma natural valores de solidaridad y voluntariado entre la ciudadanía.

– Otros: si se considera conveniente, a través de este servicio se podrán canalizar otros servicios complementarios. Por ejemplo, el programa de frío, las ayudas para la adquisición de medicamentos por parte de las personas itinerantes.

CAPÍTULO II

PERSONAS USUARIAS

Artículo 4. Condiciones de las personas usuarias.

a) Personas usuarias del servicio de atención diurna:

– Ser mayor de edad.

– Necesitar apoyos de baja intensidad para cubrir algunas necesidades a través de este tipo de servicios.

– No rechazar el tratamiento adecuado en caso de enfermedad infecciosa o contagiosa y/o enfermedad mental.

– No precisar atención sanitaria especializada y/o permanente fuera de los recursos a los que tiene acceso el servicio o que puede prestar por sí mismo.

– Haber solicitado plaza para acudir al servicio o, en su caso, haber solicitado su renovación.

– Cumplir las normas e instrucciones indicadas por el personal del servicio.

– No haber sido expulsado previamente del servicio de atención diurna y del servicio de acogida nocturna.

– No haber consumido sustancias antes de la entrada en el servicio.

– No simultanear el servicio de acogida nocturna con la atención diurna, salvo prescripción de los y las profesionales del servicio.

b) Personas usuarias del servicio de acogida nocturna:

– Ser mayor de edad.

– Seguir las instrucciones del personal relacionadas con el aseo personal y la higiene del propio centro.

– No presentar problemas de conducta y/o conductas que perturben gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo, o supongan un riesgo para la persona usuaria o para otras personas.

– No padecer enfermedad física o psíquica que requiera hospitalización.

– No precisar atención sanitaria especializada y/o permanente fuera de los recursos a los que tiene acceso el servicio o que pueda prestar por sí mismo.

– Haber solicitado plaza para el servicio en horario de reservas (lunes a viernes de 10:00 a 10:30).

– No haber superado el límite de permanencia de siete noches (salvo prórrogas concedidas por profesionales).

– Haber transcurrido el plazo de tres meses desde la última acogida nocturna establecido en la normativa, salvo que exista otra prescripción técnica.

– Cumplir las normas e instrucciones indicadas por el personal del servicio.

– No haber sido expulsado previamente del servicio de atención diurna y del servicio de acogida nocturna.

– No haber consumido sustancias antes de la entrada en el servicio.

– Gaueko harrera-zerbitzua eta eguneko arreta biak aldi berean ez baliatzea, non eta zerbitzuko profesionalak ez duten bestelako preskripzio teknikorik eman.

c) Boluntarioak:

– Izaera solidarioa izatea.

– Askatasunez egitea, betebeharrak pertsonal edo juridikorik gabe, eta nor bere borondatez onartuta.

– Ordainsari ekonomikorik edo materialik gabe egitea beren ekarpena.

– Genero-indarkeria delituengatik eta besteen bizitzaren, osotasun fisikoaren eta moralaren eta askatasunaren aurkako erasoengatik aurrekari penalik ez izatea (ikus 8. art.). Hori egiaztatze, delitu horien ondorioz aurrekari penalik ez izatearen erantzunkizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

– Adin nagusikoa izatea, arraza, sexua, erlijioa, baldintza sozial eta ekonomikoa edozein izanik ere.

– Osasun nahikoa izatea boluntario gisa eskatutako lanak betetzeko eta denbora aldetik prestutasun jarraitua izatea.

– Elkartasun, eskuzabaltasun eta konpromisozko espiritua izatea, eta, era berean, onuradunen duintasuna modu aktiboan babesteko gai izatea.

– Talde-lanerako heldutasuna, oreka emozionala, egokitzea gaitasuna eta erraztasuna izatea.

– Berdinen arteko errespetuan oinarrituta harremanetarako gaitasuna izatea (hizkuntza sexistarik eta arrazistarik erabili gabe...).

5. artikulua Erabiltzaileen eskubideak.

a) Eguneko arretako zerbitzuaren erabiltzaileak:

* Zentroaren barne-funtzionamenduko arauen berri jasotzekoa.

* Bere sinismen zibiko, politiko, moral eta erlijiosoak errespetatuak izatekoa.

* Ondoko prestazio hauek jasotzekoa, beti ere ezarritako ordutegi eta baldintzak errespetatuz:

– Gizarte zerbitzuak: Informazioa, Bitartekaritza, Gizarte- eta hezkuntza-erloto esku-hartzea Esku-hartze psikosoziala (entzuketara aktiboa eta emozioei eustea).

– Osagarriak: Mantenua, Norberaren garbiketa eta Arropak garbitzeko zerbitzua.

* Arreta profesionala jasotzekoa eta gizarteratze arloko balorazioa egin ahal izatekoa.

* Kexa eta iradokizunak egitekoa.

* Izaera pertsonaleko datuak eta informazio pribatuaren inguruko konfidentzialtasuna bermatzeko.

b) Gaueko harrera-zerbitzuko erabiltzaileak:

* Zentroaren barne-funtzionamenduko arauen berri jasotzekoa.

* Bere sinismen zibiko, politiko, moral eta erlijiosoak errespetatuak izatekoa.

* Ondoko prestazio hauek jasotzekoa, beti ere ezarritako ordutegi eta baldintzak errespetatuz:

– Gizarte Zerbitzuak: Informazioa, Premien hasierako balioespena edo jarraipen-balioespena, Gizarte- eta hezkuntza-erloto esku-hartzea, Arlo psikosozialeko esku-hartzea (entzute aktiboa eta emozioei eustea).

– Osagarriak: Gaua igarotzea, mantenua, higiene pertsonala, ikuztegia, urgentziatzeko oinarritzko arropa.

* Arreta profesionala jasotzekoa eta gizarteratze arloko balorazioa egin ahal izatekoa.

– No simultaneare el servicio de acogida nocturna con la atención diurna, salvo que exista otra prescripción técnica por parte de los profesionales del servicio.

c) Voluntariado:

– Tener carácter solidario.

– Realizar el voluntariado libremente, sin obligación personal o jurídica, y por propia voluntad.

– Realizar su aportación sin retribución económica o material.

– Carecer de antecedentes penales por delitos de violencia de género y por agresiones contra la vida, la integridad física y moral y la libertad de los demás (ver art. 8). Para acreditarlo deberán presentar declaración responsable de no tener antecedentes penales por dichos delitos.

– Ser mayor de edad, independientemente de la raza, sexo, religión, condición social y económica.

– Tener salud suficiente para desempeñar las tareas requeridas como voluntario/a y disponibilidad continuada en cuanto a tiempo se refiere.

– Espíritu de solidaridad, generosidad y compromiso, así como capacidad para proteger activamente la dignidad de las personas beneficiarias.

– Madurez, equilibrio emocional, capacidad y facilidad de adaptación para el trabajo en equipo.

– Capacidad de relación basada en el respeto entre iguales (sin hacer un uso sexista ni racista del lenguaje).

Artículo 5. Derechos de las personas usuarias.

a) Personas usuarias del servicio de atención diurna:

* A ser informada de las normas de funcionamiento interno del centro.

* A ser respetada por sus creencias cívicas, políticas, morales y religiosas.

* A percibir, respetando el horario y las condiciones establecidas, las siguientes prestaciones:

– De servicios sociales: Información, mediación, intervención socioeducativa, e intervención psicosocial (escucha activa y contención emocional).

– Prestaciones complementarias: Servicio de manutención, limpieza personal y lavandería.

* A recibir atención profesional y a ser objeto de valoración en materia de inclusión social.

* A formular quejas y sugerencias.

* A que se garantice la confidencialidad de los datos de carácter personal y de la información privada.

b) Personas usuarias del servicio de acogida nocturna:

* A ser informada de las normas de funcionamiento interno del centro.

* A ser respetada por sus creencias cívicas, políticas, morales y religiosas.

* A percibir, respetando el horario y las condiciones establecidas, las siguientes prestaciones:

– De servicios sociales: Información, valoración inicial o de seguimiento de necesidades, intervención socioeducativa, e intervención psicosocial (escucha activa y contención emocional).

– Prestaciones complementarias: Pernocación, manutención, higiene personal, lavandería, y ropa básica de urgencia.

* A recibir atención profesional y a ser objeto de valoración en materia de inclusión social.

- * Kexa eta iradokizunak egitekoa.
- * Izaera pertsonaleko datuak eta informazio pribatuaren inguruko konfidentzialtasuna bermatzekoa.

c) Boluntarioak:

Ondoko prestazio hauek jasotzekoa:

- Prestakuntza eta Formazioa,
- Profesionalen orientazioa eta babesa,
- Antolatutako promozio eta sentsibilizazio kanpainetan parte hartzeko aukera.

d) Profesionalak:

Indarrean dauden eta aplikagarriak diren lan-hitzarmenetan eta gainerako araudian jasotzen diren eskubide guztiak.

6. artikulua Erabiltzaileen betebeharrak.

a) Erabiltzaileak:

- Zentroan ostatu hartuta daudenen edo lana egiten dutenen sinesmen zibiko, politiko, moral eta erlijiosoak errespetatu.
- Zentruko funtzionamendua arautzen duten barne-arauak ezagutu eta bete.
- Elkarbizitza, higieena eta garbitasun arauak bete, bai pertsonalak eta baita zentrokoak ere.
- Zentruan lan egiten dutenak eta boluntario dihardutenak errespetuz tratatu.
- Gaixo egonez gero, medikuak emaniko botikak hartu, baita posologia eta gainontzeko zainketari dagozkionak ere.

– Ezarritako ordutegiak bete.

– Gizarte-langilearekin adostutako hitzorduak errespetatu, eta zerbitzuko profesionalen eta boluntarioen adierazpenei kasu egin.

Betebehar hauek bete ezean, erabiltzaileari dagozkion eskubideak bertan behera geldituko dira; baita zerbitzua eta bertako arreta jasotzeko eskubidea ere.

b) Boluntarioak:

– Aurrez konprometua hartutako zereginak betetzea (beti ere boluntarioen zereginen artean jasota daudenen artean): Eguneroko lanetan laguntzea sukaldeko langileei (mahaia jarri, zerbitzatu, jaso, txukundu...); Erabiltzaileak hartzeko eta agurtzeko fasean parte hartzea;...); espezializatua ez den lagun-egitea erabiltzaileekin;

– Adiskide boluntarioen artean integrazioa, prestakuntza eta parte-hartzea bultzatzea eta zerbitzuko profesionalekin lokarriak sortzea eta estutzea.

– Profesionalei jarduerak eta hobekuntzak proposatzea eta banakoen artean nahiz taldean gertatu diren aldaketen edo arazoen berri ematea.

– Zerbitzuaren antolaketarako deitutako bileretara modu aktiboan bertaratzeko.

– Zerbitzua eta boluntariotza sustatzeko lanetan parte hartzea.

– Kolektiboa sentsibilizatzeko kanpainetan laguntzea.

– Zerbitzuko edonork eragindako desoreka-egoerak, errespetu faltak edo arauen urraketak jakinaraztea eta salatzea beharrezkoa denean.

- * A formular quejas y sugerencias.

* A que se garantice la confidencialidad de los datos de carácter personal y de la información privada.

c) Voluntariado:

A percibir las siguientes prestaciones:

- Preparación y formación.
- Orientación y apoyo de profesionales.
- Posibilidad de participar en las campañas de promoción y sensibilización organizadas.

d) Profesionales:

Todos aquellos derechos recogidos en los convenios laborales vigentes y demás normativa de aplicación.

Artículo 6. Obligaciones de las personas usuarias.

a) Personas usuarias:

- Respetar las creencias cívicas, políticas, morales y religiosas de las personas alojadas o que trabajan en el centro.
- Conocer y cumplir las normas internas que regulan el funcionamiento del centro.
- Cumplir las normas de convivencia, higiene y aseo, tanto personales como del centro.
- Tratar con respeto a las personas que trabajan en el centro y a las que actúan como voluntarias.
- En caso de enfermedad, tomar la medicación prescrita por el personal médico, respetando también la posología y cuidados correspondientes.

– Cumplir los horarios establecidos.

– Respetar las citas acordadas con la trabajadora o trabajador social y atender las indicaciones de profesionales y voluntarios del servicio.

En caso de incumplimiento de estas obligaciones, se suspenderán los derechos de la persona usuaria, así como el derecho al servicio y a la atención en el centro.

b) Voluntariado:

– Cumplimiento de tareas previamente comprometidas (siempre dentro de las tareas establecidas para el voluntariado): Apoyo en las tareas cotidianas al personal de cocina (poner la mesa, servir, recoger, ordenar); participación en la fase de recepción y despedida de personas usuarias;...); acompañamiento no especializado a las personas usuarias;

– Fomentar la integración, formación y participación entre compañeros y compañeras voluntarias y crear y estrechar lazos con los y las profesionales del servicio.

– Proponer actividades y mejoras a los y las profesionales, informando de los cambios o problemas que se han generado tanto a nivel individual como colectivo.

– Asistir de forma activa a las reuniones convocadas para la organización del servicio.

– Participar en la promoción del servicio y del voluntariado.

– Colaborar en las campañas de sensibilización del colectivo.

– Comunicación y denuncia de situaciones de desequilibrio, faltas de respeto o infracciones cometidas por cualquier persona del servicio.

III. KAPITULUA

SARTZEKO PROZEDURA

7. artikulua. Sartzeko modua.

Sarrera zuzeneko zerbitzuak izango dira, bertako profesio-
nalek baimenduko dute sarrera eskaera.

Izena ematea:

a) Eguneko arretako zerbitzua: Izena emateko ordutegia:
10:00etatik 10:30era.

b) Gaueko harrera-zerbitzua: Izena emateko ordutegia:
10:00etatik 10:30era. Plaza libreren bat geratzekotan, 19:00-
19:30.

c) Boluntariotza: Zerbitzuaren koordinatzailea arduratuko
da boluntarioak biltzeko kanpainak antolatzeaz eta norbana-
koek egiten dituzten eskaintzak aztertu eta lantzeaz.

8. artikulua. Egonaldia.

a) Eguneko arretako zerbitzua.

Gehienez ere bost egunetarako izen-emateak egingo dira;
egonaldiaren iraupena ez da mugatua, eta bi egunetik behin ber-
ritu daiteke, non eta ez den baldintzaren bat urratzen. Egonaldi
bereziko egoerak sor daitezke, preskripzio teknikopean.

b) Gaueko harrera-zerbitzua.

Erabiltzaileek gehienez ere 7 eguneko egonaldia egin ahal
izango dute. Hiru hilabete igaro arte ezingo dute berritua gaueko
harrera-zerbitzua baliatu.

Arrisku egoera sortarazi dezaken eguraldia dagoenean, hau
da, gaueko tenperatura 5.º zentigrado edo baxuagoa izango
dela aurreikusita dagoenean, azken egonalditik igaro beharreko
epari dagokion baldintza hori betetzen ez duten erabiltzaileei
ere arreta egin ahal izango zaie, beti ere gaueko Zerbitzuan pla-
zak libre dauden kasuan.

c) Boluntariotza.

Zerbitzuaren beharren eta boluntarioen disponibilitatearen
arabera erabakiko da.

IV. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDUA

9. artikulua. Barne-funtzionamenduko arauak.

Bazterkeria egoeran daudenentzako Udalaren Eguneko eta
Gaueko arreta Zerbitzuak, Abegik, barne funtzionamendurako
arautegia izango du, bertako erabiltzaile, boluntario eta profes-
ional guztiek ezagutu eta errespetatu beharko dutena.

Azken xedapenak.

Lehenengoa. Araudi honetan jaso ez diren kasuak ema-
nez gero, Tolosako Udalak zerbitzuak emateko oro har aurreiku-
sita dituen arauak hartuko dira aintzat.

Tolosa, 2022ko uztailaren 29a.—Alkatea. (5206)

CAPÍTULO III

PROCEDIMIENTO DE ACCESO

Artículo 7. Forma de acceso.

Serán servicios de acceso directo, cuya solicitud de acceso
será autorizada por profesionales del servicio.

Inscripción:

a) Servicio de atención diurna: Horario de inscripción:
10:00-10:30.

b) Servicio de acogida nocturna: Horario de inscripción:
10:00-10:30 En caso de plazas vacantes: 19:00-19:30.

c) Voluntariado: La persona coordinadora del servicio será
la encargada de organizar las campañas de reclutamiento de
voluntarios y voluntarias y de analizar y elaborar las ofertas in-
dividuales.

Artículo 8. Estancia.

a) Servicio de atención diurna.

Se realizarán inscripciones por un periodo máximo de cinco
días; la duración de la estancia no es limitada y podrá renovarse
cada dos días, salvo que se incumpla algún requisito. Pueden
darse situaciones de estancia especial bajo prescripción téc-
nica.

b) Servicio de acogida nocturna.

Las personas usuarias podrán disfrutar de una estancia má-
xima de 7 días. No podrán volver a disfrutar del servicio de aco-
gida nocturna hasta transcurridos tres meses.

Cuando existan condiciones meteorológicas que puedan dar
lugar a una situación de riesgo, es decir, cuando se prevea que
la temperatura nocturna sea igual o inferior a 5.º centígrados,
se podrá atender también a las personas usuarias que no cum-
plan la condición correspondiente al tiempo transcurrido desde
la última estancia, siempre que existan plazas disponibles en el
servicio nocturno.

c) Voluntariado.

Se determinará en función de las necesidades del servicio y
de la disponibilidad de las personas voluntarias.

CAPÍTULO IV

FUNCIONAMIENTO

Artículo 9. Normas de funcionamiento interno.

El Servicio Municipal de Atención Diurna y Nocturna para
personas en situación de exclusión, Abegi, dispondrá de un re-
glamento de funcionamiento interno que deberá ser conocido y
respetado por todas las personas usuarias, voluntarias y profes-
ionales del mismo.

Disposiciones finales.

Primera. En los supuestos no contemplados en la presen-
te normativa se estará a las normas de prestación de servicios
previstas con carácter general por el Ayuntamiento de Tolosa.

Tolosa, a 29 de julio de 2022.—La alcaldesa. (5206)